

Karmele Muñoa Arrigainek, Bermeoko Udaleko idazkari akzidentalak, ziurtatzen dot, 2021-07-13(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

4.- LAMERAKO 1 ZK.KO KIOSKOA ESLEITZEA ETA 2 ZK.KOA HUTSIK DEKLARATZEA ONARTZEA.

Xedea

Lamerako 1. kioskoaren emakida esleitzea eta 2. kioskoa hutsik deklaratzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urtarrilaren 19an hartutako erabakiaren bidez, Lamerako 1. eta 2. kioskoen erabilera pribatiborako administrazio-emakidak enkante bidez esleitzeko espedientea onesten du.

Bigarrena: Iragarkia BAO n argitaratzen da (17. iragarki zenbakia), 2021eko urtarrilaren 27an.

Hirugarrena: 2021eko urtarrilaren 29ko 226. zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, pleguen aldaketa puntuala erabakitzen da, eta erabaki hori 2021eko otsailaren 10ean BAO n argitaratzen da (27. iragarki zenbakia). Aldaketaren ondorioz, proposamenak aurkezteko epea 5 egun naturaletan luzatzen da.

Laugarrena: Ángel Pereira Pereira jaunak, 2021eko otsailaren 23an alegazioak aurkezten ditu espediente hasieraren aurka. Tokiko Gobernu Batzarrak alegazio horiek deuseztatzen ditu 2021eko martxoaren 23ko erabakiaren bidez.

Bosgarrena: Emandako epe barruan, honako hauek eskaintzak aurkeztu dituzte:

- María Begoña Pereira Calzada
- Xabat Badiola Aramburu
- Ángel Pereira Pereira
- Larysa Skubko

Seigarrena: 2021eko martxoaren 15ean Kontratazio Mahaia biltzen da, aurkeztutako eskaintzen A gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta kalifikatzeko. Azterketa egin ondoren, ohartarazi da Larysa Skubko andreak aurkeztutako A gutun-azalean



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500073D3200R9G2E7K6X715

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAHLARI AKZIDENTALA - 14/07/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2021
10:04:56

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0061
Data: 14/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500073D3200R9G2E7K6X715



proposamen ekonomikoa sartu duela. Mahaiak zer egin eztabaidatu ondoren, B gutun-azala irekitzea erabaki du, bertan, errakuntza bategatik erantzukizunpeko adierazpena sartuko zuela pentsatuz. Baina, B gutun-azalaren barruan ere, proposamen ekonomikoa bat agertzen da. Hori dela-eta, kontratazio mahaiak erabakitzen du zuzentzeko eskaera egitea, 3 eguneko epean dokumentazio zuzena aurkezteko.

Zazpigarrena: 2021eko martxoaren 17an, Kontratazio Mahaia biltzen da. Lehendabizi, aditzera ematen da Larysa Skubko andreak ez duela proposamena zuzendu emandako epe barruan, eta hori dela eta, Kontratazio Mahaiak erabakitzen du lizitaziotik kanpo uztea. Ondoren proposamen ekonomikoen gutun-azalak (B gutun-azalak) irekitzen dira ekitaldi publikoan, hurrengo emaitzarekin:

Izen-abizenak	Kiosko zenbakia	Prezioa
María Begoña Pereira Calzada	1	6.614,40 €
Xabat Badiola Aramburu	1	5.046,00 €
Ángel Pereira Pereira	1	2.580,00 €

Horiek horrela, Kontratazio Mahaiak erabakitzen du organo eskudunari proposatzea María Begoña Pereira Calzada andreari 1. kioskoaren emakida esleitzea, eskaintza ekonomikorik onuragarriena izan delako.

Horretaz gain, 2. kioskoa hutsik deklaratu behar da, ez delako eskaintzarik aurkeztu.

Zortzigarrena: Errekerimendu bidez, 15 egun balioduneko epea ematen zaio María Begoña Pereira Calzada andreari pleguetan ezarritako dokumentazioa aurkezteko eta bermea eratzeko. Epe hori igarota, aipatutako interesdunak ez du dokumentaziorik aurkeztu. Horrenbestez, ulertzen da uko egiten diola emakidari.

Bederatzigarrena: Aurrekoaren ondorioz, lizitazio prozeduran hurrengo eskaintza onuragarriena aurkeztu duenari errekerimendua bidaltzen zaio, 15 egun balioduneko epean ere dokumentazioa aurkeztu eta bermea eratzeko.

2021eko ekainaren 7an eta 7142 erregistro zenbakiarekin, Xabat Badiola Aramburu jaunak idazkia aurkezten du uko eginez emakidari.

Hamargarrena: Azkenik, Ángel Pereira Pereira jaunari errekerimendua bidaltzen zaio dokumentazioa aurkeztu eta bermea eratzeko. Lizitzaile horrek pleguetan eskatzen diren agiriak aurkeztu ditu epe barruan, baita behin betiko bermea eratu ere. Era berean, Diruzaintza Sailak baieztatu du udalarekin zorrik ez duela.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500073D3200R9G2E7K6X715

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZLARI AKZIDENTALA - 14/07/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2021
10:04:56

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0061
Data: 14/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500073D3200R9G2E7K6X715



Argudioak

Lehenengoa: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehia bidez emango dira. Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.2 artikulua ere antzeko terminoetan adierazten da, hurrengoa xedatuz: *“las concesiones se otorgarán previa licitación, con arreglo a los artículos siguientes y a la normativa reguladora de las contratación de las corporaciones locales.”*

Bigarrena: Kasu honetan, esleitzeko prozedura enkantea izan da, baldintza oinarrien 3. klausulan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena: Halaber, baldintza agirien 12. klausulan hurrengoa adierazten da: *“proposamenak zabaldu eta, gehienez, hilabeteko epean, dagokion udal organoak, emakiden esleipena egingo du, eskaintza altuena aurkeztu duenaren alde”*.

Laugarrena: Emakidaren esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa. Hala ere, 20121eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Larysa Skubko andreak aurkeztutako eskaintza baztertzea, A gutun-azalean proposamen ekonomikoa sartu duelako, informazio hori B gutun-azalaren barruan egon behar duenean, eta eskatutako erantzukizunpeko adierazpena ez aurkezteagatik zuzentzeko emandako epearen barruan.

BIGARRENA: Lamerako 2. kioskoaren emakida hutsik deklaratzeko, pleguetan ezarritako irizpideen arabera eskaintza onargarririk aurkeztu ez delako, lizitazio-prozedura berri bat hasteko aukera alde batera utzi gabe.

HIRUGARRENA: Lamerako 1. kioskoaren erabilera pribatiboaren emakida esleitzea Ángel Pereira Pereira jaunari, administrazio-klausula partikularren orrian zehazten diren baldintzetan.

LAUGARRENA: Emakidaren kanona urtean 2.580,00 eurokoa izango da, aurkeztutako eskaintzaren arabera.

BOSGARRENA: Emakidaren epea 15 urtekoa izango da, administrazio agirian emakida idatziz formalizatzen denetik hasita. Epe hori luzaezina izango da eta,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500073D3200R9G2E7K6X715

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAIZLARI AKZIDENTALA - 14/07/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2021
10:04:56

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0061
Data: 14/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500073D3200R9G2E7K6X715



beraz, hura betetakoan, jabari publikoaren erabilera pribatiboa utziko da.

SEIGARRENA: Kontratua administrazio-agiri batean formalizatzea, esleipen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epean. Horretarako, behar bezala deituko zaio esleipendunari.

ZAZPIGARRENA: Esleipen hau eta kontratuaren formalizazioa Bermeoko Udalaren kontratugilearen profilean argitaratzea.

ZORTZIGARRENA: Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasunari jakinaraztea, Ondare Eskualdaketan gaineko Zerga likidatzeko, martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa.

BEDERATZIGARRENA: Ingurumen Sailera igortzea, jarduera gauzatzeko behar diren baimenen gaineko izapideak egikaritzeko.

HAMARGARRENA: Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, erabaki honen aurka dagozkion errekurtsioak adieraziz.

HAMAIKAGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran akordio honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500073D3200R9G2E7K6X715

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAHLARI AKZIDENTALA - 14/07/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/07/2021
10:04:56

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0061
Data: 14/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500073D3200R9G2E7K6X715

